



ANEXO A

WALIKALE WEBQUEST – DONOSTI 2018 GALDERAK

1. Zein ibilbide egin ohi du mugikor batek?

- a) Ekoizpen eta erabilera prozesuari jarraituz: erausketa, mineralen fundizioa, muntaketa, kontsumoa, bazterketa.
- b) Geografikoki: Kongo, Asia, Donostia, Ghana.
- c) Geografikoki: Kongo, Rusia, Asia, Donostia.
- d) “a” eta “b” erantzunak zuzenak dira.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/xTqDF³>

2. Zeintzuk dira Kongoko Errepublika Demokratikoko Ekialdean topatu ditzakegun “gatazka mineralak”?

- a) Estainua, urrea, tantalioa eta wolframa.
- b) Diamanteak.
- c) Kobaltoa, diamanteak, estainua, urrea, tantalioa eta wolframa.
- d) **Aurreko guztiak dira, baina legalki orain arte “gatazka mineral” bezala “a” aukeran aipatutakoak jasoak daude.**

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/mk0df⁴>

3. Mineralen erauzketatik gailu elektroniko bukatuetara dagoen prozesu osoa kontutan hartzen duen gatazka mineralen hornidura arduratsua sustatzen duen legedirik ba al dago?

- a) Ez.
- b) Bai, Estatu Batuetan.
- c) **Bai, estatu Batuetan eta Europan, baina Europan derrigorrezkoa da bakarrik mineral gordinak edo prozesatuak (plakak, hariak etb.) inportatzen dituzten enpresentzat, eta ez gailu elektroniko bukatuak (mugikorak, tabletak) inportatzen dituztenentzat.**
- d) Bai, Estatu Batuetan eta Europan, eta derrigorrez bete behar dituzte hornidura katean parte hartzen duten enpresa guztiek, erausketatik azken kontsumo katearaino doazenak.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/8gEQz⁵>

**4. ALBOANen hurrengo bideoa ikusi: <https://www.youtube.com/watch?v=YPSHej88ZdY>
Zein erantzun da zuzena?**

- a) Emakumea bazara, Kongoko Errepublika Demokratikoa da bizitzeko lekurik arrikutsuenetarikoa.
- b) Gure kontsumismoa eta bertan jasaten den biolentzia zuzenki lotuta daude.
- c) ALBOANek Bulengo Etxea laguntzen du, emakumezkoek emakumeentzat kudeatzen duten ekimena, indarkeri-sexuala jasan duten emakumeak lagundu eta indartzeko Synergie de Femmes contre Les Violences Sexuellese-en proiektua dena.
- d) **Aurreko guztiak zuzenak dira.**

5. Hurrengo linkean azaltzen den audioa entzun: <http://exposiciontlc.tecnologia LibreDeConflicto.org/eu/exposicion-4/> Kongoko Errepublika Demokratikoan artisau meataritzan aritzen diren pertsonen generoaren arabera rol desberdinak dituzte?

- a) **Bai, gizonzkoek meatzetatik mineralak ateratzen dituzte. Emakumeek berriz mineralak garbitu, prozesatu eta garraiatzen dituzte batez ere, oso jardura arrikutsuak hauek ere bai.**
- b) Ez.
- c) Bai, emakumeek ez dute meatzetan parte hartzen, soilik umeak zaintzen dituzte.
- d) Bai, gizonen mineralak garraiatzen dituzte emakumeek meatzetatik ateratzen dituzten bitartean.

6. CEREALen arabera, telefono mugikor baten prezioaren zein portzentai erabiltzen da hura ensanblatu zuen pertsonaren sodata ordaintzeko?

- a) %20. b) %1. c) %45. d) %5.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/RSYv7⁶>

³ https://www.tecnologia LibreDeConflicto.org/Fichas/02_Ficha_La_ruta_CONSOLIDADA_EU.pdf

⁴ http://mated2.alboan.efaber.net/system/card_eus/2566/original/01_Ficha_Minerales_conflicto_CONSOLIDADO_EU.pdf?1445875532

⁵ <https://www.tecnologia LibreDeConflicto.org/eu/gatazka-mineralen-legeari-buruzko-behin-betiko-akordioa>

⁶ https://www.tecnologia LibreDeConflicto.org/wp-content/uploads/2014/10/07_Ficha_Ensamblaje_CONSOLIDADA_EU.pdf



WALIKALE WEBQUEST – DONOSTI 2018 GALDERAK

7. Makila fabriketan gizon eta emakumeen lan baldintzak berdinak al dira?

- a) Bai, berdinak dira.
- b) Ez, emakumeek soldata baxuagoak izan ohi dituzte eta.
- c) Ez, emakumeek sarritan sexu jazarpenak pairatzen dituzte eta.
- d) Aurreko bi aukerak zuzenak dira.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/RSYv7>

8. Munduko zabortegi elektronikoko handienetarikoa Agbogboshien, Ghanan, dago. Bertara urtero 129.000 tona ondakin iristen dira. Zeintzuk dira bertan emakumeek aurrera ateratzen dituzten jarduera nagusiak?

- a) Zabor jasoketa eta birziklaia.
- b) Nagusiki gizonak helikatan dituzte, baina badira plastiko garbiketan aritzen direnak ere.
- c) Bigarren eskuko salmenta.
- d) Zabor erretze prozesuan parte-hartze zuzena dute.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/gjOel>⁸

9. Espainia mailan urtero 1067,40 tona produktu elektronikoko merkaturatzen dira, hau da, 23,08kg biztanleko, eta 832,93 tona zabor elektronikoko sortzen, 18kg persona bakoitzeko. Zeintzuk dira hainbeste zabor elektronikoko sortzearen arrazoi nagusiak?

- a) Kontsumo etengabe eta neurrigabea.
- b) Gailu asko ez irauteko moduan diseinatuta daudela, hau da, obsoleszentzia programatua.
- c) “a” eta “b” zuzenak dira.
- d) Kontsumorik ez egotea.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/VUPt>⁹

10. Ze premisa planteatzen ditu CRIC Elkarteak (Kontsumo Ikerketa eta Informaziorako Zentroa) kontsumo kontziente eta eraldatzaile bat egon dadin?

- a) Gutxiago kontsumitu eta behar duguna kontsumitzea.
- b) Gizartea eta ingurumena aintzat hartuta kontsumitzea.
- c) Gailuak urtean behin soilik erostea.
- d) “a” eta “b” erantzunak zuzenak dira.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/9evIN>¹⁰

11. Okupazio ertain-baxuko gizon eta emakume batek Fakephone 6 erosi nahi dute, eta prezioa 400 €tik gorakoa da. Biek euren soldataren portzentai bera erabiliko al dute telefona erosteko?

- a) Bai, gizon eta emakumeek soldata bera jasotzen baitute lan beragatik.
- b) Ez, soldata bera jasotzen badute ere gizonezkoak gastu gehiago baititu.
- c) Ez, bi sexuen arteko soldata-hutsune edo “bretxa-soldata” dagoelako, Euskal Autonomi Erkidegoan emakumeek gizonek baino %24,3 (7.552€) gutxiago kobratzen dutelako.
- d) Aurreko biak zuzenak dira.

Laguntza-baliabidea: <https://labur.eus/pfyZx>¹¹

⁷ https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2014/10/07_Ficha_Ensamblaje_CONSOLIDADA_EU.pdf

⁸ <https://www.vice.com/es/article/3bmkqn/visitamos-el-mayor-vertedero-de-chatarra-electronica-del-mundo-111>

⁹ https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2014/10/10_Ficha_e-wasteCONSOLIDADA_EU.pdf

¹⁰ https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2014/10/08_Ficha_Propuestas_Consumo_CONSOLIDADA_EU.pdf

¹¹ <http://emakunde.blog.euskadi.eus/eu/2018/03/eaeko-egoeraren-diagnostikoa-urkeztu-du-emakundek-soldata-arrailaren-mahaian-eta-erantzun-integral-baten-beharra-azpimarratu-du/>